
DONOSTIAKO UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA VII. Plangintzaldia (2023-2027)



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Musika eta Dantza Eskola

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3. or.
2. Aurrelanak	5. or
2.1. KEMEN metodologia	5. or.
2.2. Lan prozesuaren helburuak	7. or.
2.2.1. Helburu nagusia	7. or.
2.2.2. Helburu zehatzak	8. or.
2.3 Lan prozesuaren nondik norakoak	8. or.
2.3.1. Egiturak	8. or.
2.3.2. Lan-prozedura.....	9. or.
3. Euskararen Plan Estrategikoa 2023 – 2027	10. or.
3.1. Erakundearen indarguneak eta hobetzekoak	10. or.
3.2. Erronka eta helburu estrategikoak	13. or
3.2.1. Kudeaketaren erronkak eta helburu estrategikoak	13. or
3.2.2. Erabileraren erronkak eta helburu estrategikoak	13. or.
3.3. Plan Estrategikoa.....	14. or.
3.3.1. Adierazleen araberako helburuak aurreikusteko irizpideak	14. or.
3.3.2. Adierazleen araberako helburuak.....	16. or.
3.3.3. Helburu estrategikoak lortzeko lan-ildo nagusiak	18. or.
3.4. Hizkuntza irizpideak	20. or.
3.5. Antolakuntza egiturak eta funtzioak	20. or.
3.6. Baliabideak	21. or.
3.6.1. Giza baliabideak eta bestelakoak	21. or.
3.6.2. Euskarazko Atalak	21. or.
3.7. Planaren garapena eta jarraipena.....	22. or.

1. SARRERA

Euskararen erabileraren normalizazioari lotuta indarrean dagoen araudiaren arabera, herri administrazioei dagokie herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta euskararen erabilera normalizatzeko neurriak hartzea. Horrela, azken urteotan urrats garrantzitsuak egin dira Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolan, bai herritarrei zuzendutako zerbitzu eta jardueretan, bai barne komunikazioetan euskararen erabilera areagotzeko; baina erabilera ez da behar hainbatean hazi, eta jauzi hori egitea da aurrera begirako erronka nagusia.

Euskararen Erabilera Planaren zutabeak lau dira: izaera estrategikoa izatea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea hizkuntza berdintasuna helburu izanik, eta administrazioa eredu eta erreferentziazko gune izatea, betiere arduradun politiko eta teknikoen lidergoarekin.

Ikuspegi estrategikoa

VII. Euskararen Erabilera Plana (2023-2027 epeari dagokiona) Eusko Jaurlaritzak garatutako arau eta irizpideak gauzatzera dator Musika eta Dantza Eskolan.

Segida kronologikoari dagokionez, Musika eta Dantza Eskolak landu duen zazpigarren plana da hau. Aurreko urteetan egindako lanak oinarri sendoa ematen dio erakundeari, plana garatzeko eta proposatzen diren neurriak gauzatzeko.

Urte hauetan guztietan Eusko Jaurlaritzak garatutako araudiari jarraituz, kultura soziolinguistiko berri bat hedatu nahi da Eskolan, euskara erakundeko komunikazio, zerbitzu eta lan hizkuntza izan dadin, zeharkako ikuspegiari sakonduz eta euskararen kudeaketa bere gain hartuta.

Hortaz, Musika eta Dantza Eskolaren lehen lana izango da denekin eta testuinguru guztietan euskaraz lasai aritzeko erakundea izan dadin lan egitea; ahaztu gabe, dauzkagun arauetatik abiatuta, datozen urteetan Eskola nagusiki euskaraz arituko den erakundea izatea bilatzen dela plan honen bidez, hori baita euskararen biziberritze prozesuari arnasa ematen dion ikuspuntua.

Herritarren hizkuntza eskubideak eta hizkuntza berdintasuna

Euskararen ofizialtasunak herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar ditu, unibertsaltasun printzipioa oinarri hartuta, gizartean harreman parekideak lortzeko eta gizarte kohesioari laguntzeko. Horregatik, hizkuntza eskubideen bermeak gidatuko du Musika eta Dantza Eskolaren jarduerak, ahalbidetuz hiztun komunitateak euskaraz bizitzeko duen eskubidea eta ziurtatuz herritarren hiz-

kuntza hautua erakundearekin dituen harremanetan. Oinarrizko printzipio horretatik ondorioztatzen da hizkuntza eskubideak herritarrenak direla, eta ez botere publikoenak. Hartara, Musika eta Dantza Eskolaren betebeharra da eskubide horien erabilera bermatzea.

EAE n bi hizkuntza ofizial ditugu, balio juridiko berbera izan arren, egoera soziolinguistiko desberdinean eta desorekatuan daudenak. Egoera desberdin horren aurrean, Musika eta Dantza Eskolak lehentasunez erabiliko du euskara, bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna ekarriko duen egoera lortzeraino. Herritarren hizkuntza aukeraren berdintasuna bermatu eta desoreka berdindu nahi bada, erabilera sozialean mugakizun handienak dituen hizkuntzaren alde jokabide positiboko neurriak hartu behar dira, frogatua baitago, horiek gabe, arauen eragina mugatua dela hizkuntzaren garapeneren alde. Eragin sozial handia duten gainerako politika publikoetan bezala, Eskolak ereduzko jokabidea izateko erantzukizuna hartu nahi du esparru honetan.

Horrenbestez, erakundeak neurriak hartu eta bultzatuko ditu, euskarari funtzio eta espazio propio batzuk emanez eta gaztelaniarekiko oreka berri bat sustatuz, kultura soziolinguistiko berri baten parametroetan.

Administrazioa: eredu eta erreferentziako gune

Badira 40 urte baino gehiago bi hizkuntza ofizialen araubidea ezarri zenetik, eta euskararen ezagutza handitzeko aurrerapauso garrantzitsuak egin dira eremu askotan; besteak beste, administrazioan.

Euskararen biziberritzea, ordea, ezin da oinarritu ezagutza indartzeko neurrietan bakarrik. Ezinbestekoa da, ezagutzaz harago, erabilera esparruak eta funtzioak ere irabaztea, eta erronka handienetako bat da lan munduan erabilera areagotzea; eremu horretan ezinbestekoak dira Administrazioaren erreferentzialtasuna eta lidergoa.

Lidergoa

Musika eta Dantza Eskolaren hizkuntza politikaren baitan, arduradun politikoei eta teknikoei berebiziko garrantzia eta erantzukizuna dute erakundearen jardura guztietan hizkuntza irizpideak betetzeko eta betearazteko. Hartara, erakundearen arduradunak eredugarriak eta erabilera planarekin koherenteak izateak bultzada handia emango dio bere hizkuntza politikari. Halaber, Eskolatik kanpora ere eragiteko gaitasun handia izango dute, herritarren eta eragile sozioekonomikoen aurrean euskararen aldeko jarrera proaktiboa badute.

Beraz, Musika eta Dantza Eskolak, euskarari dagokionez, bere etorkizuna honela irudikatzen du:

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak nagusiki euskaraz funtzionatuko duen erakundea izan nahiko luke; hau da, denekin eta testuinguru guztietan euskaraz lasai egin daitekeen eremu bat izango da, non hiritarrei une oro eta leku guztietan euskara bermatuko zaien, eta musika eta dantza irakaskuntzaren arloko euskalduntzen erreferente izango den.

Etorkizuneko helmuga hori lortzeko bidean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 19/2024 Dekretuak jasotzen duenaren arabera eta Eusko Jaurlaritzak hizkuntza-normalizazioaren kudeaketa eta jarraipena egiteko proposatu duen KEMEN markoa oinarri hartuz, erakunde autonomo honek 2023-2027 eperako VII. Euskararen Erabilera Plana prestatu du eta, eman beharreko pausoak Plan Estrategiko honetan definitu ditu, genero ikuspegia kontuan hartuz; bertan zehaztu dira datozen bost urteotarako helburu estrategikoak, adierazleen araberrako helburu zehatzak eta horiek gauzatzeko lan-ildoak, arduradunak eta epeak.

2. AURRELANAK

2.1. KEMEN metodologia

Musika eta Dantza Eskolak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Plangintzaldiaren (2018-2022) ebaluazio datuak oinarri hartuta, VII. Plangintzaldirako Plan Estrategikoa (2023-2027) osatu du.

Horretarako, Hizkuntza Politika Sailak euskal sektore publikoko erakundeek euskararen erabilera kudeatzeko eta jarraipena egiteko garatu duen marko eta tresna berria hartu dugu kontuan: **KE-MEN, Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizatorako**.

KEMEN, Kudeaketa eta Erabilera Marko berriak edozein erakundetan euskararen kudeaketa, erabilera eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen ditu. **Marko berrian lehentasunezko tokia airtortzen zaio kudeaketari**; hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Baina kudeaketa ez da helburua, baliabidea baizik. Beraz, KEMENek kudeaketa eta jarraipenerako adierazleen sistema-eguneraketa ekarri du eta hurrengo hauek dira marko berriaren ezaugarri nagusiak:

- Edozein erakundetan, euskararen erabilera kudeatu eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen dituen markoa da.

- Kudeaketari lehentasuna eman zaio, eta euskararen erabilerari dagozkion adierazleetan eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...
- Adierazleen formulazio positiboa egin da, normalizazio-prozesuaren norabidea markatzeko asmoa.
- Erakunde bakoitzak markoa bere errealitate, ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukera dauka.
- Adierazleen **aginte-panela** osatu da. Kemen metodologiaren barruan, Eusko Jaurlaritzak 48 adierazle zehaztu ditu baina euskal sektore publikoko erakundeen jarraipenerako aginte panelean ezarri dituen gutxieneko adierazleak 14 dira. Hau da, Musika eta Dantza Eskola erakunde autonomoak 14 adierazle horiek ezinbestean landu beharko ditu bere Plan Estrategikoan eta horren berri eman beharko dio Eusko Jaurlaritzari. Hala ere, 14 adierazle horiez gain, estrategikoak eta lehentasunezkoak diren beste adierazle batzuk aukeratzea egokia ikusi da eta, beraz, Plan Estrategiko honen jarraipena egiteko beste zenbait ere erabiliko dira.

Gauzak horrela, ondoko taulan jasotzen dira KEMEN markoak dituen 48 adierazleak. Crema kolorez ageri direnak Eusko Jaurlaritzak ezinbestekotzat jo dituen aginte-panelekoak dira eta urdinez ageri direnak, aurrekoez gain, Musika eta Dantza Eskolak aukeratu dituenak.

ARLOA	ADIERAZLEA
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Erakundeak erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.
	Erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
LIDERGOA	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezten.
	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera planean zehaztutako moduan.
LANGILEAK	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.
	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.
	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.
	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.
	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz.
ARLOA	ADIERAZLEA
GAITASUNA	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.
	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.
	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldee
	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.
HIZKUNTZA KLAUSULAK	Kontratuaren hizkuntza-klausulak txertatzen dira.
	Dirulaguntza eta hitzarmenaren hizkuntza-klausulak txertatzen dira.

	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetakoa hizkuntza-klausulen betetze-mailari.
	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari

ARLOA	ADIERAZLEA
IRUDIA	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude
	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude
	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan
	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak
HERRITARREKIKO HARREMANAK	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen
	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz
	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira
	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak
	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz
	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz
	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz
BARNE-HARREMANAK	Lan-bilerak euskaraz egiten dira
	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da
	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da
	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira
	Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian
	Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian
	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago
KANPO-HARREMANAK	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana
	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak
	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana
	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak
PRESTAKUNTZA	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei
	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra
	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei
BALIABIDE INFORMATIKOAK	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak
	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak
SORTZE-HIZKUNTZA	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak

2.2. Lan-prozesuaren helburuak

2.2.1. Helburu nagusia

- VI. Plangintzaldiari dagokion Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren ebaluazio kualitativa egitea, eta VII. Plangintzaldiari dagokion planaren erronka eta lan-ildo nagusiak lantzea, Eskolako eragileekin batera, eta parte hartzean oinarrituta.

2.2.2. Helburu zehatzak

- Musika eta Dantza Eskolako eragileen iritziak jasotzea eta haien inplikazioa areagotzea.
- Saiotetan parte hartzen duten kideen euskararekiko atxikimendua eta ardura areagotzea.

2.3. Lan-prozesuaren nondik norakoak

2.3.1 Egiturak

VI. plangintzaldiko (2018-2022) diagnostikoaren azterketa egin eta VII. plangintzaldiko (2023-2027) Euskararen Plan Estrategikoaren oinarriak lantzeko honako egitura hauek osatu ditugu:

- [Lantalde teknikoa](#)


Partaideak
<ul style="list-style-type: none">• Elhuyar Aholkularitzako teknikariak: Helene Armentia eta Uxue Loinaz• Donostiako Euskara Zerbitzuko teknikariak: Edurne Otamendi, Amaia Iribar, Amaia Olabarria, Tomas Ugaldebere, Maite Zipitria, Ales Bengoetxea eta Roxa Okariz.
Funtzioak
<ul style="list-style-type: none">• Prozesua antolatu eta koordinatu• Diagnostikoa osatzeko datuak bildu eta informazioa jaso• Prozesuan zehar gertatzen diren arazoei irtenbidea bilatu.

- [Egitura Eragilea](#)

<ul style="list-style-type: none">• Partaideak• Elhuyar Aholkularitzako teknikaria. Uxue Loinaz Urruzola• Erakunde autonomoko arduraduna: Mikel Romero• Erakunde autonomoko Erabilera Batzordeko kideak: Maider Urrestarazu, Enekoitz Martínez eta Jon Ansorena• Euskara Zerbitzuko teknikaria: Amaia Olabarria eta Amaia Iribar
<ul style="list-style-type: none">• Funtzioak• Diagnostikoa kontrastatu eta osatu• VII. plangintzaldiaren erronka eta lan-ildo estrategikoak hausnartu eta landu.

2.3.2 Lan-prozedura

VI. Plangintzaldiaren diagnostikoaren kontrastea egiteko eta VII. Plangintzaldiaren Plan Estrategikoaren hezurdura diseinatzeko honako urratsak hauek egin dira:



3. PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2027

3.1. Erakundearen indarguneak eta hobetzekoak

Jarraian jaso dugu Musika eta Dantza Eskolako euskararen erabilera eta presentziaren egoeraren argazkia. 2022ko VI. Plangintzaldiaren ebaluazio-datuak hartu ditugu oinarri egungo egoeraren diagnostikoa osatzeko, eta datu horiek marko berrira (KEMEN) ekarri ditugu.

Ondoren, modu laburrean, KEMEN markoaren arlo bakoitzean Musika eta Dantza Eskolaren indargune eta hobetu beharrekoak jaso dira. Xehetasun handiagoarekin, arlo bakoitzeko adierazleen araberrako abiapuntuko egoerak eta helburuak (%) dokumentu honen bukaerako taulan (3.3.2 taula) ikusi ahal izango dira.

KUDEAKETA

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
EUSKARAREN KU- DEAKETA OROKO- RRA	Euskararen kudeaketa orokorrari dagokionez, ondorio nagusia da erabilera-plana kudeatzeko egiturak badaudela.	Plan Estrategikoaren jarraipena egiten den arren, kudeaketa-planen jarraipena sistematizatu beharra dago. Erakundearen Plan Estrategikoan neurri batean txertatzen dira hizkuntza gaiak, erabat txertatzea eta zuzendaritzan jarraipena egitea.

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
LIDERGOA	Arduradun teknikoek jarrera proaktiboa dute. Arduradun teknikoek, Euskara Zerbitzuak eskatuta, arlo jakinetako datuak bildu eta bidaltzen dizkie Euskara Zerbitzuari (prestakuntza, ezagutza...)	Erabilera Batzordea osatu administrazio ataleko arduradun batekin.

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
LANGILEAK	Kudeaketa-planari zein hizkuntza-irizpideei buruzko informazioa modu orokorrean jasotzeak ondorio zuzena dauka euren lan-jardunari lotutako hizkuntza-eginkizunen betetze-mailan. Langileek, oro har, jarrera proaktiboa dute, eta barneratuta dago eskolak euskaraz funtzionatu behar duela.	Hizkuntza-irizpideak ezagutzen dituzten arren, ez zaio jarraipenik egiten betetze-mailari. Halaber, taldekako eskoletarako hizkuntza-irizpideak fintzea komeni da.

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
GAITASUNA	<p>Langileen % 80 gai da bere lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko (gal-detegia).</p> <p>% 75ek du HE eskakizuna egiaztatuta.</p> <p>Bestetik, arduradun politikoa gai da bere funtzioak euskaraz betetzeko.</p>	<p>Ikasle eta familiei bidaltzen zaizkien idatzizko mezuen kalitatea hobetu beharko litzateke.</p> <p>Euskara-teknikoari dagokionez, hutsunea dago zenbait lan euskaraz egiteko, eta hizkuntza-kalitatean antzematen da.</p>

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	<p>Azken urtean, euskararen normalizazioaren ezagutza jasotzeko ekimenetan erakundeak % 50eko parte-hartzea izan du, eta % 50ean komunikatu die herritarrei eta interes-taldee.</p>	<p>Komunikazioari dagokionez, euskara-plana eta hizkuntza-irizpideen komunikazioa sustatu eta indartu behar da.</p> <p>Langileen erdiek hartzen dute parte euskararen erabilera sustatzeko ekimenetan; baina ekimenetan parte hartu arren, langile asko ez dira jabetzen. Barnera zein kanpora begira komunikazioa hobetu behar da.</p>

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	<p>Kontratu, lagapen eta hitzarmen guztiek txertatuta dituzte hizkuntza-klausulak.</p>	<p>Edonola ere, ahulezia hizkuntza-klausulen jarraipenean dago.</p>

ERABILERA Zerbitzu-hizkuntza

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
IRUDIA	<p>Oro har, irudiarekin lotutako edukiak (errotulazioa, argitalpenak, iragarkiak, sare sozialak edota webgunea) ele biz daude.</p> <p>Eskolak, oro har, irudi euskalduna transmititzen du.</p>	<p>Euskara gaztelania baino zertxobait gehiago erabiltzen da (60/40) baina alde hori handitu daiteke, edo euskara hutsez egin gero eta gehiago.</p>

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
HERRITARREKIKO HARREMANAK	<p>Herritarrekiko harremanetan, euskarazko arreta jaso nahi dutenei, oro har, euskaraz erantzuten zaie</p> <p>Herritarren % 57 zuzentzen zaio erakundeari euskaraz.</p> <p>Barneratuta dago eskolak euskaraz funtzionatu behar duela.</p> <p>Eremu batzuetan (auzo, eskola, talde..) euskararen erabilera % 100ekoa da.</p>	<p>Ikastaroetan ez zaie % 100ean bermatzen zerbitzu-hizkuntza.</p> <p>Taldekako klaseetan hizkuntza-kudeaketa egokia egiteko zailtasunak daude. Denek euskaraz ulertzen ez duten kasuan, edota gaztelania erabiltzeko joera da goen kasuetan, gaztelania gehiago erabiltzen da.</p>

Lan-hizkuntza

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
BARNE-HARREMANAK	<p>Barne-harremanetan, euskararen erabilera % 60 ingurukoa da. Azken urteetan euskararen erabilerak nabarmen egin du gora.</p>	<p>Bereziki, ahozko barne-harreman ez formaletan gaztelania erabiltzeko joera handiagoa da.</p>

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
KANPO-HARREMANAK	<p>Sektore publikoarekin izaten diren harremanak, oro har, euskaraz izaten dira.</p>	<p>Sektore pribatuko erakundeekin euskararen erabilera baxuagoa da.</p>

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
PRESTAKUNTZA	<p>Prestakuntza orokorra euskaraz eta ele bietan eskaintzen da (gaztelaniaz soilik eskaintzen direnak gutxi izaten dira).</p>	<p>Langileen erdiek jaso dute prestakuntza orokorra euskaraz.</p>

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
BALIABIDE INFORMATIKOAK	<p>Erakundeak aplikazio informatiko ia guztiak euskaraz ditu (ez denak).</p>	<p>Langileen % 58k euskaraz erabiltzen ditu.</p>

ARLOA	INDARGUNEAK	
SORTZE-HIZKUNTZA	Langileen % 57k sortzen ditu dokumentuak euskaraz edo ele bietan.	

1

3.2. Erronka eta helburu estrategikoak

3.2.1. Kudeaketaren erronka eta helburu estrategikoak

KUDEAKETAREN ERRONKA	Euskararen kudeaketa eta jarraipena egiteko sistema eraginkorra sortzea.
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOA
Euskararen kudeaketa orokorra	Jarraipenerako sistema eraginkorra sortzea (Tetra)
Lidergoa	Lidergoaren gaitasuna eta proaktibotasuna mantentzea.
Langileak	Langileen inplikazioa sustatzea, prozesuaren parte senti daitezen, eta, horretarako, komunikazio-lana sendotzea.
Gaitasuna	Euskara-gaitasuna dutenei baliabideak eskaintzea euskaraz lan egiteko (gaitasunaren potentzialitatea aprobetxatu); eta euskara-gaitasuna ez dutenen gutxiengo ezagutza bermatzea.
Euskararen erabilera sustatzeko estrategia	Sektorean euskararen sustapenean erreferente izatea.
Hizkuntza klausulak	Jarraipen-sistematikoa egitea hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

3.2.2. Erabileraren erronkak eta helburu estrategikoak

ERABILERAREN ERRONKA	Donostiako Udalean eta sektorean eredu izatea, bidegile izatea.	
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOA	
Z H	Irudia	Elebitasunetik euskara hutsezko jautzia egiten hastea, komunikazio eta irudian.
	Herritarrekiko harremanak	Euskarazko hezkuntza-eskaintza areagotzea, eta euskaraz eskainitakoa euskaraz ematea.
	Barne-harremanak	Harreman ez-formaletan euskararen erabilera areagotzea, eta lan-bilera gehiago egitea

L H		euskara hutsez.
	Kanpo-harremanak	Enpresa pribatuekin harremana egitean, ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzea.
	Prestakuntza	Hizkuntza-prestakuntza eskaintzea, bereziki, hizkera teknikoari dagokionez, eskolako hizkuntza-kudeaketari dagokionez eta idazkerari dagokionez.
	Baliabide informati-koak	Baliabide informatikoetan euskararen erabilera areagotzea
	Sortze-hizkuntza	Euskaraz gehiago sortzea.

3.3. Plan estrategikoa

3.3.1. Adierazleen arabeko helburuak aurreikusteko irizpideak

Hasieran aipatu bezala, Plan Estrategikoan aginte-paneleko adierazleez gain, Musika eta Dantza Eskolaren erronka eta helburu estrategikoak erdiesteko adierazleak txertatu ditugu. Bertan, adierazle bakoitzaren egungo egoera (hau da, 2023ko adierazle horren datu kuantitatiboa) eta plangintzaldi amaierarako aurreikuspena zehaztu ditugu (hau da, zein ehunekotara iritsi nahi dugun 2027an).

Adierazle bakoitzaren datu kuantitatiboak eta datu kualitatiboak kontuan izanda, honako irizpide hauek finkatu ditugu aurreikuspenak egiteko:

1.- KUDEAKETA.

1.1. Euskararen kudeaketa orokorra: Musika eta Dantza Eskolaren Erabilera Batzordean zuzendaritza ondo ordezkaturik dago eta Plan Estrategikoaren diseinuan parte hartu dute. Kudeaketa planean zehaztutako hainbat puntu Zuzendaritza Batzordera eramaten dira jarraipenerako, baina horren jarraipen sistematikoa egitea aurreikusten da, ekintzen eraginkortasuna ezagutu eta egokitzapenak egiteko. Horregatik, adierazlea %75etik %100era igo da.

1.2. Lidergoa: Erabilera Batzordea Administrazio ataleko kide batekin osatzeko aukera ikusten da, administrazio lan-taldea egonkortzen denean. Arduradun politiko eta teknikoaren inplikazioa dagoneko badagoenez, igoera txikia aurreikuste dugu horretan, baina igoera handiagoa jarraipen lanean eta adierazleak biltzeko sistema osatzean.

1.3. Langileak eta 1.4. Gaitasuna: Langileek, oro har, jarrera proaktiboa dute euskararen normalizazioari dagokionez, baina haien inplikazioa indartzea aurreikusten da, prozesuaren parte senti dai-

tezen, eta, horretarako, komunikazio-lana egin beharko da. Interesgarri ikusten da euskararen erabilera erakundean duen bilakaera jasotzea, baina dagoeneko iritzi positiboa dagoenez, igoera txikia aurreikusten da (%3). Hizkuntz-irizpideak zuzen erabiltzeko formazioa ere beharrezkoa da, baina gaitasun aldetik dauden mugekin igoera %5koa proposatzen da. Gaitasunari dagokionean, idatzizkoa lantzeko beharra antzeman da, ikasle eta gurasoekiko idatzizko harremanei dagokienean.

1.5. Hizkuntza klausulak: Jarraipenean indarra jartzea da plangintzaldi honen helburu estrategiko bat. Hori dela eta, %25eko igoera aurreikusi dugu.

2.- ERABILERA:

2.1.- Zerbitzu-hizkuntza: Legez, %100ean bete behar da euskarazkoa eta ele bietakoa kontuan hartuta.

2.1.2. Herritarrekiko harremanak: Herritarrak erakundera zuzentzeko erabiltzen duten hizkuntzari dagokionean, interesgarria ikusi da hau jasotzea, baina hobekuntza marjina txikia da, hein handi batean ez baitago eskolaren esku.

2.2.- LAN-HIZKUNTZA

2.2.1. Barne-harremanak: Lan bileretan hobekuntza egiteko aukera ikusten da, %15eko igoera. Lankideen arteko harremanetan (bai lanekoak bai informalak) %10 puntu hobetzea aurreikusten da. Langile berriak euskaldunak dira eta hobetzeko aukera dago.

2.2.2. Kanpo harremanak: Erakunde publikoekin harremana dagoeneko maila handi batean euskaraz egiten da, beraz, igoera tarte txikia aurreikusten da (%3-5). Bestalde, enpresa pribatuekin idatziz gaztelaniaz aritzeko ohitura dago, eta hor euskara gehiago erabiltzeko aukera landu nahi da.

2.2.3. Prestakuntza. Batez ere hizkuntza trebakuntzan hobekuntza tarte ikusten da (%15).

2.2.4. Sortze hizkuntza. Langileen pertzepzioz jasotako datua %57koa da. Bi hizkuntzetan egiten diren hainbat idatzi euskara hutsez egin daitezkeela uste da. Horrek sortzeko bultzada emango luke.

3.3.2. Adierazleen araberako helburuak

KUDEAKETA					
Kudeaketaren erronka		Euskararen kudeaketa eta jarraipena egiteko sistema eraginkorra sortzea.			
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK			
		ZK	ADIERAZLEAK	Hasierako egoera 2023	Aurre-lkuspena
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Jarraipenerako sistema eraginkorra sortzea (Tetra)	1	Erakundeak erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	%75	%100
		2	Erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	%50	%75
LIDERGOA	Lidergoaren gaitasuna eta proaktibotasuna mantentzea.	3	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean	%42	%75
		4	Arduradunek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezten	%75	%80
		5	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera planean zehaztutako moduan	%50	%75
LANGILEAK	Langileen inplikazioa sustatzea, prozesuaren parte senti daitezten, eta, horretarako, komunikazio-lana sendotzea.	6	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten	%75	%85
		7	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	%75	%80
		10	Langileek iritzi-positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz	%75	%78
GAITASUNA	Euskara-gaitasuna dutenei baliabideak eskaintzea euskaraz lan egiteko (gaitasunaren potentzialitatea aprobetxatu); eta euskara-gaitasuna ez dutenen gutxieneko ezagutza bermatzea.	12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	%70	%73
HIZKUNTZA KLAUSULAK	Jarraipen-sistematikoa egitea hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	18	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	%25	%50
		19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	%25	%50

ERABILERA

Erabileraren erronka		Donostiako Udalean eta sektorean eredu izatea, bidegile izatea.			
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK			
		ZK	ADIERAZLEAK	Hasierako egoera 2023	Aurreikuspena
2.1 ZERBITZU- HIZKUNTZA	HERRITARREKIKO HARREMANAK Euskarazko hezkuntza-eskaintza areagotzea, eta euskaraz eskainitakoa euskaraz ematea.	24	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	%80	%100
		25	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	%88	%100
		26	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	%55	%100
		27	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	%90	%100
		28	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	%88	%100
		29	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz	%57	%60
		30	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz	%57	%60
2.2 LAN HIZKUNTZA	BARNE-HARREMANAK Harreman ez-formaletan euskararen erabilera areagotzea, eta lan-bilera gehiago egitea euskara hutsez.	31	Lan-bilerak euskaraz egiten dira	%70	%75
		32	Lankideen arteko ahozko eta idatzizko lan-harremana euskaraz izaten da	%60	%70
		33	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da	%50	%60
		34	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	%90	%93
	KANPO- HARREMANAK Enpresa pribatuekin harremana egitean, ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzea.	38	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana	%80	%85
		39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	%90	%93
	PRESTAKUNTZA Hizkuntza-prestakuntza eskaintzea, bereziki idatzizkoari dagokionez.	41	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	%60	%65
42		Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei	%75	%80	
2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA Euskaraz gehiago sortzea		44	Hizkuntza trebakuntza eskaintzen zaie langileei	%50	%65
		47	Euskaraz sortzen dira dokumentuak	%57	%65

3.3.3. Helburu estrategikoak lortzeko lan-ildo nagusiak

KUDEAKETA				
Kudeaketaren erronka		Euskararen kudeaketa eta jarraipena egiteko sistema eraginkorra sortzea.		
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	LAN-ILDOAK	ARDURADUNAK	URTEA
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Jarraipenerako sistema eraginkorra sortzea (Tetra)	Hiru hilean behin, Plan Estrategikoan jasotako helburu eta ekintzen egoera aztertu, baloratu eta jarraipena egin	Euskara Batzordea eta Zuzendaritza Batzordea	URTERO
LIDERGOA	Lidergoaren gaitasuna eta proaktibotasuna mantentzea.	Arduradunek Euskara Batzordean parte hartu eta planaren jarraipena egin	Euskara Batzordea eta Zuzendaritza Batzordea	URTERO
		Adierazleak biltzeko sarea edo sistema osatzea. Jarraipena egitean, datuak sexuen arabera desagregatuta jasoko dira, ahal den guztietan.	Zuzendaritza Batzordea	URTERO
LANGILEAK	Langileen inplikazioa sustatzea, prozesuaren parte senti daitezen, eta, horretarako, komunikazio-lana sendotzea.	Euskararen Plan Estrategikoa osatzen eta onartzean, langile guztiei planaren berri eman.	Euskara Zerbitzua	2024
		Langile berriei Plan Estrategikoaren eta hizkuntza-irizpideen berri eman.	Euskara Zerbitzua	URTERO
		Langileei hizkuntza-irizpideak betetzeko prestakuntza-saioak eskaini.	Zuzendaritza Batzordea	2024
		Irakasleen oroitidazkian euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz galdetu eta datua jaso.	Zuzendaritza Batzordea	URTERO
GAITASUNA	Euskara-gaitasuna dutenei baliabideak eskaintzea euskaraz lan egiteko (gaitasunaren potentzialitatea aprobetxatu); eta euskara-gaitasuna ez dutenen gutxieneko ezagutza bermatzea.	ldatziko komunikazioak egiteko langileen dituzten trebakuntza beharrak identifikatu, trebakuntza-plana osatu eta berariazko trebakuntza eskaini.	Giza Baliabideen prozesua	2024
HIZKUNTZA KLAUSULAK	Jarraipen-sistematikoa egitea hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	Jarraipenerako sistema adostu Euskara Zerbitzuarekin batera, eta abian jarri	Zuzendaritza Batzordea	2024
		Euskara Zerbitzura bidali indarrean dauden kontratuen agiriak eta sinatzen diren berriak	Zuzendaritza Batzordea	URTERO
		Eskolarekin hitzarmena sinatuta duten erakundeek argitaratzen dituzten kartelak eta komunikazioak eskatu eta hizkuntza-klausulak bermatzen diren aztertu.	Kudeatzaileen bulegoa	URTERO

Erabileraren erronka		Donostiako Udalean eta sektorean eredu izatea, bidegile izatea.			
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	LAN-ILDOAK	ARDURADUNAK	URTEA	
2 · 1 Z E R B I T Z U - H I Z K U N T Z A	HERRITARREKIKO HARREMANAK	Euskarazko hezkuntza-eskaintza areagotzea, eta euskaraz eskainitakoa euskaraz ematea.	Lehen hitza euskara egiteko sentsibilizazio-lana egin..	Euskara Batzardea	2023-2024
			Herritarrekiko hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu eta jarraipena egin. Horretarako, neurketarako sistema adostu (gogobetetze-inkesta).	Euskara Batzardea	URTERO
			Ekitaldietan, gaztelania baino euskara gehiago erabiltzeko ereduak landu.	Euskara Batzardea	2024
			Ikastaroak zein hizkuntzatan eskaintzen eta ematen diren jasotzeko tresna sortu.	Euskara Batzardea	2024
			Escolak ematean, egoera elebikoak kudeatzeko tresnak eta baliabideak eskaini.	Euskara Batzardea	2024
			Herritarrekiko hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu eta jarraipena egin. Horretarako, neurketarako sistema adostu.	Euskara Batzardea	URTERO
			Herritarrekiko hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu eta jarraipena egin. Horretarako, neurketarako sistema adostu (gogobetetze-inkesta).	Euskara Batzardea	URTERO
			Herritarren harremanetarako hizkuntzaren datua jaso eta aztertu. Horretarako, datu-bilketa egiteko sistema adostu.	Euskara Batzardea	URTERO
2 · 2 L A N H I Z K U N T Z A	BARNE-HARREMANAK	Harreman ez-formaletan euskararen erabilera areagotzea, eta lan-bilera gehiago egitea euskaraz hutsez.	Lan-bileren mapa osatu eta euskaraz egin daitezkeenak identifikatu	Zuzendaritza Batzardea (1.1 prozesua)	2024
			Euskarazko atalak izendatu (kudeatzailearen bulegoa, auzoak, zerbitzu orokorrak, ...).	Zuzendaritza Batzardea (1.1 prozesua)	URTERO
	KANPO- HARREMANAK	Enpresa pribatuekin harremana egitean, ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzea.	Kanpo-harremanetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu eta jarraipena egin. Horretarako, neurketarako sistema adostu.	Euskara Batzardea	URTERO
			Idatzizkoan euskara gehiago erabiltzeko konpromisoa eta kontratazio berrietan hizkuntza baldintza gehiago sartu ote daitekeen aztertu		
	PRESTAKUNTZA	Hizkuntza-prestakuntza eskaintzea, bereziki idatzizkoari dagokionez.	Trebakuntza beharrak identifikatu eta trebakuntza-plana osatu	Giza Baliabideen prozesua	2023-2024
Hizkuntza-trebakuntza beharrak identifikatu eta trebakuntza-plana osatu			Euskara Batzardea	URTERO	
2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA	Euskaraz gehiago sortzea	Identifikatu zein prozedura/idatzizko komunikazio egin euskaraz hutsean eta beharrezkoa bada txantiloak osatu	Zuzendaritza Batzardea eta Euskara Batzardea	2024	
		Aukeratutako prozedura/komunikazio horiek euskaraz egin		URTERO	

3.4. Hizkuntza irizpideak

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak Eskolaren Euskara Plana garatzeko ezinbesteko gidari eta tresna dira, hizkuntza arau batzuk finkatzen baitituzte Eskolaren jardura esparru guztietan (kanpo zein barne komunikazioetan, hizkuntza paisaian, administrazio kontratuetan ...) euskararen erabilera normalizatzeko.

Hizkuntza irizpide horiek, VII. Euskara Planarekin batera onartuko ditu erakunde autonomoak eta horien betetze-maila eta hartu beharreko neurriak planari etengabeko jarraipena eginez aztertuko dira. 19/2024 Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, hizkuntza irizpideak denboran irauteko tresna bat dira, eta plangintzaldien eta plan estrategikoen iraupenak ez du haien indarraldia baldintzatuko.

3.5. Egitura eta Funtzioak

Plan estrategiko hau eta oro har, 7. plangintza aldiak jasotzen duena garatzeko eta inplementatzeko Musika eta Dantza Eskola erakunde autonomoko antolakuntza egitura ondokoa da:

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Batzordea

Musika eta Dantza Eskolan dagoen erabilera batzordeari jarraipena emango zaio. Datorren plangintza aldi batzorde horiek kide hauek izango dituzte:

- Zuzendaria edo, salbuespen modura, berak eskuordetutako langilea, eta betiere, ardura zuzendariarena berarena izango da.
- Ardura eta maila desberdinetako hainbat langile. Langile kopurua departamentuaren taimainaren araberakoa izango da.
- Euskara Zerbitzuko hizkuntza normalizatzailea.

Erabilera batzordeak honako funtzio hauek izango dituzte:

- Artezkaritza kontseiluak onartutako Plan Estrategikoa erakundera moldatzea, urteko ekintza planaren bitartez, hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak gidarizat hartuta.
- Lehentasunak zehaztea.
- Aurrera eramango diren normalizazio ekintzak eta baliabideak adostea, zuzendaritzaren onespenerekin.
- Planaren jarraipena egitea.

3.6. Baliabideak

3.6.1. Giza baliabideak eta bestelakoak

Euskara Plana aurrera eramateko giza baliabide hauek aurreikusten dira:

a) Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Batzordean parte hartuko duten langileak.

b) Euskara Zerbitzuko hizkuntza normalizatzailea:

Euskara Zerbitzuko hizkuntza normalizatzailea izango da dinamizatzaile eta aholkulari Eskolako kudeaketa plana inplementatzerakoan. Normalizatzailearen zereginak hauek izango dira, besteak beste: egitasmoaren diseinua proposatzea, berau betetzeko normalizazio ekintzak proposatzea, egitasmoa betetzeko hizkuntzari lotutako aholkularitza eta laguntza ematea eta ebaluazioa egiteko metodologia proposatzea.

c) Euskara Zerbitzuko itzultzaile-interpretak: testuak itzultzeko eta euskarazko testuak zuzentzeko zerbitzua eskaintzeaz gain, interpretazio zerbitzua eskainiko dute, betiere zerbitzu horietaz baliatzeko zehaztutako irizpideak eta irizpide zehatzak kontuan hartuz.

Musika eta Dantza Eskolak hizkuntza baliabideak eskainiko dizkie langileei euskaraz lan egiten laguntzeko: hizkuntza prestakuntza, trebakuntza, zuzenketa zerbitzua, dokumentu estandarrak, itzultzaile automatikoak, zerrenda terminologikoak, zuzentzaile ortografikoak eta abar.

3.6.2. Euskarazko administrazio-unitateak

Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 17. artikularen arabera, beren zereginak nagusiki euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak dira euskarazko administrazio-unitateak. Euskarazko administrazio-unitateak dira lanpostuen %80an gutxienez lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta dutenak, arduraduna barne.

Donostiako Udalean dagoeneko hainbat atal daude honela izendatuta. Atal edo unitate hauek euskararen erabilera normalizatzeko planaren ardatz edo erdigune dira; dena den, atal horiek arrakasta izatekotan, euskarazko administrazio-unitate direnen eta ez direnen arteko elkarlanaren ondorio izango da.

Horregatik, Musika eta Dantza Eskolak, Udaleko departamentu horiekiko harremanetan euskarazko komunikazioak bideratuko ditu, eta Eskolan bertan ere, Euskarazko administrazio-unitateak izendatzen joango dira era progresiboan, izendatzeko baldintzak bete ahala.

Musika eta Dantza Eskolak, Plangintzaldi honen barruan Euskarazko administrazio-unitateak izendatuko ditu, kronograma honi jarraiki:

- 1) Kudeatzailearen bulegoa, Auzoetako gelak eta Zuzendaritza Batzordea: 2024-25 ikasturtea
- 2) Zerbitzu Orokorrak eta Herrerako egoitza: 2025-26 ikasturtea

Beste unitate batzuk ere izendatu litezke plangintzaldiaren barruan, beti ere zehaztutako baldintzak beteko balira.

3.7. Planaren garapena eta jarraipena

Erakunde bakoitzak plangintzaldiaren hasieran (2023an), erdian (2025ean) eta amaieran (2027an) erakundearen autoebaluazioa egin behar du, eta, gutxienez, aginte-paneleko adierazleen datuak bidali beharko dizkio Hizkuntza Politika Sailburuordetzari. Horretarako, SAREGIN izeneko aplikazio informatikoa sortu dute, datuak jaso eta Plan Estrategikoa eta kudeaketa-planak kudeatzeko. Edonola ere, beharrezkoa den guztietan, plana garatzeko adostutako adierazleen jarraipena egin ahal izango da.

Plan hau VIII. Plangintzaldiari dagokion hurrengo plana onartu arte egongo da indarrean.